

«Etapla bat itxiko dut eta pozik nago, nostalgia handirik gabe»

Lan egiten duen bulegoaren inguruetan bildu gara Iñigo Arandiarekin, Donostian. Horrenbeste denbora eta esfortzu eskaini dion Kaixomaitia.eus proiektuari amaiera emateak ez du askorik tristatzen, baina azkenaldian bidean aurkitu dituen traba eta zailtasun burokratikoekin apur bat gogaituta sumatu dugu tolosarra. «Webguneak aldaketa sakon bat behar du eta une honetan ni ez nago horretarako», onartu digu argi eta garbi. Hortik tiraka ekin diogu elkarrizketari.

Webguneak aldaketa batzuk behar dituela aipatzen duzu. Zer aldaketa?

Webgunea teknikoki zaharkituta dago. Zortzi urte bete dituen webgune bat da. Proiektuak 17 urte bete ditu, hau hirugarren bertsioa da. Zortzi urte hauetan webgunea “par-txeatzen” joan naiz. Behar batzuk dituzu, horiek konpontzen saiatzen zara, gero beste zerbait egiten duzu... Baina proiektua bera, egitura, berrikusi egin behar zen: zerk funtzionatzen zuen ikusi, zerk ez, gaur egun dauden berrikuntzak aztertu... Eta teknikoki ere berritu beharra zegoen: aplikazio sendoago bat edo aplikazio natiboa egin... Badaude hainbat gauza mundu digitalan denbora pasa ahala egin behar direnak.

Izan zitekeen kooperatiba bat muntatzea, edo elkarte bat, eta erabiltzaile guztiekin esan “aizue, hemen beste zerbait egin behar dugu”. Pentsatu egin behar zen. Nahiz eta webguneak bere martxa darman eta bere merkatua badiuen, behar zen 2015-2016 urteetan egin zen moduko

IÑIGO ARANDIA GALARRAGA

KAIXOMAITIA.EUS ATARIAREN SORTZAILE ETA ARDURADUNA

17 urteko ibilbidearen ondoren, Iñigo Arandia Galarragak (Tolosa, 1974) irailaren bukaeran Kaixomaitia.eus ataria ixtea erabaki du, nahiz eta proiektuari jarraipena eman nahi dion norbaiti aukera hori eskaintzea ez duen baztertzen. Urte amaiera jarri du epe moduan.

Asier AIESTARAN

gogoeta sakon bat. Eta ni ez nago horretarako. 17 urte pasatu ditugu, eta orain beste nahi batzuk ditut. Ikasi egin nahi dut, lau urteko seme bat daukat eta berekin egon nahi dut, eta jaten ematen didan beste ogibide bat ere badaukat. Gauza askoren pilaketa bat da. Apple Store-ek jartzen zizkigun baldintzak ez ditugu betetzen eta ez gaude hor; GooglePlay-k ere berritzen dizkizu baldintzak eta eguneratzen joan behar duzu, gero eta zailagoa da eta gero eta kostu ekonomiko handiagoa dauka. Hor dirua joaten zaizu, eta ez webgunea hobetzeko, dagoen bezala mantentzeko baizik. Inbertitzen dituzu 2.000 euro eta erabiltzaileak ez du nabaritzen hobekuntzarik. Visa etortzen zaizu eta beste hainbat eskakizun, aseguruak, prima... Momentu honetan ez dit me-rezi horrela ibiltzea.

Era berean, egia da, merkatu bat badagoela, eta ezer gutxi eginda, urtero erabiltzaile berriak heltzen direla. Ahoz-ahokoarekin, komunikabideetan ateratzen joaten denarekin, blogean dauzkagun 500 eduki horiekin... ia organikoki izaten ditu bisitak. Eskaintza hor dago eta jendeari iristen zaio.

Une honetan zenbat erabiltzaile ditu atariak?

Une honetan izena emanda 10.000 erabiltzaile inguru ditugu. Aktiboak gutxiago, tartean daudelako bere garaian izena emandakoak eta ez dutenak baja eman. Baina uste dut hor badagoela oinarri bat aurrera jarraitzeko. Eta gaur egungo teknologiaren desabantaila batzuk aipatu ditudan bezala, egia da teknologia horrek beste gauza asko erraztu ditzakeela ere. Adimen Artifizialak ematen dituen errazta-

sunak, adibidez, bideo sorkuntzarako, edukien sorkuntzarako, automatizaziorako... Ondo posizionatuz gero trafikoa ekar dezake modu nahiko automatikoan, lan gehiegirik gabe.

Nik lehen gauza batzuk azpikontratitzen nituen, edukiak eskatzen nituen, edo erosi egiten nituen. Hori gaur egun modu nahiko autonomoan egin daiteke. Zeren bezeroak badaude. Eskaintza diferentzial bezala, proposamen diferentzial bezala, euskarazko bakarra izateak jendea erakartzen du. Badago komunitate sentimendu bat, badago interes bat, zure modukoekin euskaraz harremantzeko.

Baina argi duzu edonori eta edonola ez diozula utziko proiektuaren jarraipena.

Egia esango dizut, ez dut uste erraza izango denik, baina ate hori irekita utzi dut badagoelako komunitate bat eta badagoelako nire ustez merkatuan behar bat. Eta badelako euskalgintzako proiektu bat jarraitzea merezi duena. Euskal komunitateak daukan euskarazko harremanetarako webgune bakarra da. Ni ez egoteak ez du esan nahi ez duenik proiektuak jarraitu behar. Baina era berean badaukat erantzukizun bat komunitate horrekiko, jada sortuta dagoen komunitate horrekiko. Hor badago datu sorta bat, ongi gordeta eta ongi babestuta dagoena, behartzen nauena proiektua edonori eta edonola ez uztera. Proiektu sendo batek egon behar du atzean, berme batzuk emango dizkidana niri eta batez ere erabiltzaile horiei guztiei, behar bezala tratatuak izan daitezen. Hori da baldintza nagusia. Norbanako bat etortzen bada ez

DATUAK


Kaixomaitia webgunea **2007an** plazaratu zen, garai hartan “.com” luzapenarekin. **Hiru bertsio** izan ditu, 2009an eta 2015ean egindako aldaketak medio, azken horretan “.eus” domeinua hartuta. Ibilbide horretan **20.000** erabiltzailetik gora izan ditu atariak, **10 milioi** orrialde inguru bistaratu dira, **milioi bat** saio hasi eta **200.000** mezu idatzi dira.

daukana ibilbide bat egina, edo ez dena euskalgintzakoa, erreferentziarik ez daukana... Behar dugu kontrol minimo bat.

Eta bestea litzateke ekonomikoki nola jarraitzen dugun, zein baldintzatan. Printzipioz dohainik emateko asmorik ez daukat. Hemen inbertsio batzuk eginak daude, horrek balio bat dauka, eta gainera nik ere balio hori eman nahi diot. Hau ez da ezer balio ez duen zerbait. Norbaitek jaso nahi badu balio hori aitortu beharko dio. Hor gaude, horretan gabilta. Irail bukaerara arte online mantenduko dugu dena, orain arte bezala. Orain egin duguna da adierazpen bat bidali erabiltzaileei, eta komunikabideen bitartez jakinarazi irail amaieran webgunea itxi egingo dugula. Baina gauza bat da webgunea eta bestea enpresa eta webgunearen aktibo hori. Eta arlo horretan nire buruari urte bukaerara arteko epea jarri diot. Tarte horretan zerbait aterako balitz, demagun proiektuari jarraipena emango dion norbait aurkitzen dudala, beste komunikatu bat egingo nuke esanez: “Aizue, urte amaierara arte jarraituko dugu aktibo”. Eta elkarrizketak nola doazen ikusirik hartuko dugu erabakia. Oraingo bizpahiru mezu iritsi zaizkit interesa agertuz. Asete hauetan jarriko naiz beraiekin harremanetan eta ikusiko dugu elkarrizketa horiek nora eramaten gaituzten.

17 urte, azkar esaten da. Atzera begiratzean zer etortzen zaizu burura? Jarritako helburuak bete dira?

Ba orduan 32 urte nituen, eta orain 50. Nik uste nuen agian arrakasta ekonomiko gehixea go izango zuela, bere gastuak estaltzeko etekinak emango




Maialen ANDRES | FOKU

zituela, eta esango nuke hor-
txe-hortxe ibili dela. Egia da
euskal komunitatea txikia de-
la, eta negozioa oso nitxo da.
Niri esan balidate orduan 17
urteko ibilbidea izango zuela
sinatuko nuke, eta alde horre-
tatik egindako ibilbidearekin
pozik eta harro nago.

Ez da webgunea bakarrik,
gauza asko egin ditugu: euskal
herritarren harreman sexual
eta afektiboen inguruko galde-
ketak, adibidez. Bi olatutan
egin dira, olatu bakoitzean
8.000 pertsonak erantzun du-
te galdeketa oso luze bat gai
horien inguruan. Nik uste Eus-
kal Herrian egin den euskaraz-
ko inkesta potenteenetako bat
izan dela, online egindakoa
ziur baietz. Kontaketa lehiake-
tak ere badu bere garrantzia,
hiru edizio egin dira.

Eta oro har webguneak bere
maila teknikoa eduki du. Pres-
tigio bat izan du euskalgintza-
ko proiektu bezala eta esango
nuke euskarari ere prestigio
bat eman diola. Kalitate handi-
ko webgune bat izan da. Ho-
nek guztiak niri pertsonalki
eman didana da ikasketa pro-
zesu handi bat, bai teknikoki
bai marketin digitalean. Mun-
du digitalean eskarmentu
handia izan da. Eta horrek era
berean lagundu dit forma-
zioan jarraitzen, ehundaka
ikastaro egin ditut, master bat
ere bai tartean, 2018an...

Horrek denak bide bat ireki
dit, eta nire asmoa da orain bi-
de hori jorratzen jarraitzea,
aholkularitza munduarena,
alegia. Nahiko ezaguna izan
naiz aipatutako komunitate
txiki horretan eta horrek
eman dit aukera aholkularitza
lanak egiteko marketin digita-
lean. Horri heldu nahi diot
orain albo-lan bezala. Hori
guztia eman dit eta pozik na-
go. Kontrak ere badaude: gas-



tuak, inbertsioak... Etapa bat
itxiko dut honekin eta pozik
nago, nostalgia handirik gabe.

Garaiak oso bestelakoak zi- ren 2007an. Zer erreferentzia zenituen orduan?

Nik karrera amaitu nuenean
urte dezente eman nituen
kanpoan bizitzen. Bost urtez
Alemanian egon nintzen bizi-
tzen eta beste hiru Ingalate-
rran. Eta handik nekarren in-
terneteko esperientzia,
interneteko ezagutza, interne-
tek nola funtzionatzen zuen.
Proiektu batzuetan parte har-
tu nuen General Motors en-
presan. Hor konturatu nintzen
interneten proiektuak garatze-
ko ez zegoela sekulako aditua
izan beharrik, bazegoela auke-
ra gauza apalagoak baina txu-
kunak egiteko. Ordurako ba-
zeuden ingelesez *match.com*

*«Garai hartan
[2007], eta ez Euskal
Herrian bakarrik,
internetez ligatzea
oso frikien kontua
zen, gai tabua zen.
Inork ez zuen
onartzen internet
bidez, txat batean
edo foro batean
ligatu nahian
zebilenik»*



eta *meetic.com* webguneak
martxan. Eta dokumental ba-
tean ikusi nuen produktore
amerikar bat online ligatzeko
eta bikoteak aurkitzeko
proiektu batez hitz egiten. Eta
hor pentsatu nuen lehen aldiz
interesgarria izan zitekeela.
2003an Euskal Herrira etorri
nintzen jada ideia hori gara-
tzeko asmoarekin. Ingalate-
rran ezagutu nuen lagun bat
informatikaria zena, eta bere-
kin hasi nintzen pixkanaka la-
nean. Egia da urte hauetan ia
guztietan Lotura garatzaileare-
kin egin dugula lan eta oso po-
tentea dela, garai hartarako ja-
da hala zen. Eduki dut aukera
buruan neukana txukun gara-
tzeko.

Garai hartan, eta ez Euskal
Herrian bakarrik, internetez li-
gatzea oso frikien kontua zen,
gai tabua zen. Inork ez zuen

onartzen internet bidez, txat
batean edo foro batean ligatu
nahian zebilenik. Euskal He-
rrian are gutxiago. Eta hori na-
baritu dut batez ere 2015-
2016ko gogoeta estrategikoan.
Bloga ateratzearena nahiko ar-
gi zegoen, eta ekintzak antola-
tzearena ere bai. Baina ekin-
tzeekin ikusi zen antolatzeak
lan handia eskatzen zuela eta
emailzak oso kaskarrak zirela.
Jendeari asko kostatzen zi-
tzaion parte hartzea. Ez dakit,
agian komunitatea ez zegoen
behar bezala landuta.

Alde horretatik, argi dago gaur egun askoz ohikoagoa dela harremanak internet bi- dez egitea.

Gaur egun dena egiten da as-
koz gehiago internet bidez. Eta
gauza asko soilik internet bi-
dez egiten dira. *E-commerce* edo
erosketak, banka, komunika-
zioa... Fax bat nork bidaltzen
du? Eta harremantzeko esango
nuke lehenengo edo bigarren
modua izango dela. Eta garai
batean, berriz, ez zen existi-
tzen. Denboran atzera egingo
bagenu, 60 urte zerbait esatea-
rran, eliza zen harremanak
egiteko gune nagusia, ikerke-
tak daude horren inguruan.
Orain internet da harremanak
egiteko gune nagusietako bat.
Eta ez bereziki harremanetara-
ko propio sortutako aplika-
zioak erabiliz, baizik eta sa-
reak erabiliz. Instagram-en
argazki bati *like* eman, mezu
pribatu bat bidali... Beste kode
batzuk erabiltzen ditu gaurko
gazte jendeak. Adin batekoek
agian horretarako propio sor-
tutako zerbitzuak erabiliko di-
tuzte, baina natibo digital de-
ritzegun horiek, internetekin
hazi direnek, kode horiek era-
bat barneratuta dituzte. Eta
noski, ez daude prest horrela-
ko aplikazio bat ordaintzeko.